-

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

BERDINTASUNAREN ALDEKO
DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE LAS MUJERES DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

# Berdintasunaren aldeko Kont –
# Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2019ko urriaren 3an** / 3 de octubre de 2019<br>**Urgull Aretoa, Udaletxea** / Sala Urgull, Edificio Consistorial<br>**18:00** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera-ordua**<br>Hora de finalización | **19:45 /** A las 19:45 horas |

## GAI-ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1.- Kontseiluaren berritzea eta izendapenak: | 1.- Renovación del consejo y nombramientos: |
| Lehendari ordetzarako hautagaitza, batzorde iraunkorra eta hurrengo bileren datak | Candidatura a la vicepresidencia, comision permanente y proximas reuniones |
| 2.- Hala badagokio akta onartzea | 2.- Aprobación de acta, si procede |
| 3.- Kontseiluan lantzeko eskatutako gaiak | 3.- Temas a tratar en en Consejo |
| 4.- IV. Berdintasun planaren kronograma | 4.- Cronograma del IV. Plan de Igualdad |
| 5.- Eraso sexisten kontrako kanpaiñaren balorazioa | 5.-Valoración de la campaña contra agresiones sexistas |
| 6.- Besterik | 6.- Varios |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARIA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE: Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1.- EH Bildu**<br>**2.-Elkarrekin Donostia**<br>**3.- EAJ- PNV**<br>**4.- PSE-EE**<br>**5.- PP** |

| | | |
|---|---|---|
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ARRATS Elkartea**<br>**2.- ASADE Elkartea / Asociación**<br>**3.- ASADE Sindikatua / Sindicato**<br>**4.- ELKARTU**<br>**5.- ERNE**<br>**6.- Haurralde** | |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a título individual | (1) | |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | **1.-Gipuzkoako Emakume Banatuen elkartea**/ Asociación de Mujeres Separadas de Gipuzkoa<br>**2.-GEHITU**<br>**3.- Intxaurrondoko emakume elkartea**<br>**4.- Plazandreok**<br><br>Norbanakoak:<br>-(2) | |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad**<br><br>**Atalaren burua / Jefa de Sección** | Naiara Garate<br><br>Silvia Carballo |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko hamairu kide eta 2 udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 13<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 0<br><br>13 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del equipo técnico municipal como secretaría técnica | |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus | |

## SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

### 1. Kontseiluaren berriztapena eta izendapen berriak

Batzordea berriztatu behar da, legegintzaldi berria hasi denez gero.
Batetik, lehendakariordetzarako hautagaiak aurkeztu behar dira. Arrats, Asade eta Haurralde elkarteetako ordezkariak aurkeztu

### 1.Renovacion del Consejo y nuevos nombramientos

Dado que ha dado comienzo la nueva legislatura, hay que renovar el Consejo.

Por un lado, hay que presentar candidaturas a vicepresidencia. Se presentan las representantes de Arrats, asociación Asade y Haurralde. A la vista

dira. Hainbat hautagaitza daudela ikusita, Haurraldeko ordezkaria erretiratu egin da, eta lau urteak beste bi ordezkarien artean banatzea erabaki dute Arrats eta Asade elkarteetako ordezkariek. Horrela, lehendakariordea Asadeko ordezkaria izango da lehenengo bi urteetan eta, Arratsekoa, azken bietan.

Batzorde Iraunkorra berritu egin dute. Haurraldeko, Asade sindikatuko eta Elkartuko ordezkariak izanen dira kide berriak. Bilerak, hasiera batean, asteazkenetan izango dira, 17:00etan. Azaroaren 13an (asteazkena) izango da lehen bilera.

Emakumeen eta feministen elkarte guztiei luzatu diete Kontseiluan parte hartzeko gonbidapena, kontseilukide izan ala ez. Intxaurrondoko Emakumeen Elkarteak esan du ezin dutela, bilera ostegunetan bada; asteazkenetan, ordea, bai. Beraz, asteazkenetara aldatu egingo da Kontseiluaren eguna. Gainera, erabaki dute Intxaurrondoko Emakumeen Elkarteari galdetzea ea Batzorde Iraunkorrean parte hartu nahi duten.

Bileren hasiera ordua ere 17:00etara aurreratzea erabaki dute. Abenduaren 4an, 17:00etan, izango da hurrengo osoko bilkura.

Kide izendapena kendu diete bileretara joan ez diren eta parte hartzeko interesa azaldu ez duten erakundeei.

Bestalde, pertsona fisikoak sartzeko epea ireki da. Hiru hautagai zerrenda egon dira, besterik ez da izan, eta Kontseiluan sartu dira zozketarako beharrik gabe. Horietako bik ezin izan dira gaur etorri, baina hurrengo saioetara azalduko dira.

Erabaki dutenez, hasiera batean, Arratseko ordezkariak jarraituko du Gizarte Kontseiluan, hura ados baldin badago.

## 2. Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta onartu egin da.

## 3. Kontseiluan landu nahi diren gaiak

Batzordean zer gai jorratu nahiko lituzketen galdetu diete elkarteei. Asade Sindikatuak honako hauek proposatu ditu: emakumeak eta zaintza / emakumeak eta ezgaitasuna /

de que hay varias candidaturas, la representante de Haurralde se retira, y entre Arrats y Asade deciden que se reparten los 4 años, siendo vicepresidenta la representante de Asade los 2 primeros años, y los 2 siguientes años la de Arrats.

Se procede a renovar la Comisión Permanente. Las nuevas vocales serán laa representantes de Haurralde, sindicato Asade y Elkartu. Las reuniones, en principio, serán los miércoles a las 17:00. La primera reunión será el miércoles 13 de noviembre.

Se ha invitado a participar en el Consejo a todas las asociaciones de mujeres y feministas, formen parte o no del Consejo. Asociación de Mujeres de Intxaurrondo han dicho que no pueden si es en jueves, pero sí si es los miércoles. Se cambia, pues, la fecha del Consejo a los miércoles. Se decide, además, preguntar a la Asociación de Mujeres de Intxaurrondo si quieren formar parte de la Comisión Permanente.

Se decide también adelantar la hora de inicio de las reuniones a las 17:00. La próxima reunión plenaria será el 4 de diciembre, a las 17:00.

A las organizaciones que no han acudido a las reuniones y no han reiterado su interés por formar parte, se les ha borrado.

Por otra parte, se ha abierto el plazo para la incorporación de personas físicas. Ha habido 3 candidaturas, que pasan a formar parte del Consejo sin necesidad de sorteo. Dos de ellas no podían acudir hoy, pero vendrán a las próximas sesiones.

Se decide que en principio sigue la representante de Arrats en el Consejo Social, si ella está de acuerdo.

## 2. Aprobación del acta del Consejo anterior

Se aprueba el acta anterior.

## 3. Temas a tratar en en Consejo

Se ha preguntado a las asociaciones qué temas les interesaría se tratasen en el Consejo. Sindicato Asade propone: mujeres y cuidados/mujeres y discapacidad/mujeres y exclusión/violencia sexual y machista.

emakumeak eta bazterketa / indarkeria sexuala eta matxista.

Gaiak ateratzeko, Batzorde Iraunkorrak jarraipena egitea garrantzitsua dela uste du Haurraldeko ordezkariak. Gai hauek proposatu dituzte: Berdintasunerako Udal Plan berria / diru laguntzen deialdia berrikustea / ikerketa beka berreskuratzea. Halaber, gogorarazi du Beijingo Konferentziaren 25. urteurrena datorren urtean izango dela. Konferentzia horrek zerikusi handia du berdintasunerako egindako lanean, eta jakinaren gainean egotea garrantzitsua da. Adineko emakumeen egoera da beste gai garrantzitsu bat. Urtean 1 edo 2 monografiko egitea ere proposatu du.

Gai hauek proposatu dituzte Elkartuko ordezkariek: indarkeria matxista / ezgaitasuna / zaintza. Bere ustez, zaintzaren inguruko berariazko kontseilu bat izatea komenigarria litzateke. Funtsezko gaia dela uste dute, eta gizartean eta politikan axolagabekeria handiegia dagoela. Gai hori agendetan jasotzeko berariaz eskatu die ordezkari politikoei, herritarrak behar bezala artatuta ez daudela uste baitu. Zaintzaileen eta artatzen dituzten pertsonen ahotsak gehiago entzuteko ere eskatu du.

## 4.- IV. Planaren diseinu kronograma

Berdintasunerako IV. Plana Kontseiluan egiaztatzea adostu dute.

## 5.- Eraso sexisten kontrako kanpainaren balorazioa (udara artekoa)

Data honetan eraso sexisten kontrako kanpaiña bukatzeko dago. Aste Nagusiko balorazioa egina dagoen arren kanpaiña osoa bukatzean egingo da orokorra. Dena dela, eragile desberdinen arteko koordinazioa hobetu beharra ikusten da, salaketa publikoak, protokoloak, babesa, akonpañamendua.

## 6.- Besterik

- Elkarrekin Donostiak, Plan Estrategikotik plana aurkeztea oraindik egiteko dagoela gogorarazi du.
- Emakumeen Etxea; kokapena, proposamenak, egindakoak....

La representante de Haurralde opina que es importante hacer seguimiento desde la Comisión Permanente para que los temas salgan. Ellas proponen los siguientes temas: nuevo Plan municipal de Igualdad/revisión de la convocatoria de subvenciones/recuperación de beca de investigación. Recuerda también que el año que viene es el 25 aniversario de la conferencia de Beijing. Tiene mucho que ver con el trabajo en igualdad, y es importante que estemos informadas. Otro tema importante es la situación de las mujeres mayores. Propone también que se hagan 1 o 2 monográficos al año.

Las representantes de Elkartu proponen como temas: violencia machista/ discapacidad/cuidados. Considera que convendría tener un Consejo específico de cuidados. Consideran que es un tema fundamental y que en la sociedad y en la política hay demasiada indiferencia. Pide expresamente a las representantes políticas que pongan este tema en las agendas, pues considera que la ciudadanía está desatendida. Pide también que se escuche más la voz de las personas cuidadas, además de las de las cuidadoras.

## 4. Evaluación del III. Plan de Igualdad y diagnóstico de la ciudad:

Abenduaren 4ko kontseiluan Kontseilukideekin egingo da IV. Planaren kontrastea

## 5. Valoración de la campaña contra agresiones sexistas de verano

La campaña contra agresiones a fecha de hoy no ha finalizado. Aun teniendo una valoración especifica de semana Grande se hará una conjunta más adelante. Se incide en la necesidad de mejora de la coordinación de los distintos agentes. Denuncias publicas, protocolos, protección y acompañamiento.

## 6.- Varios

- La representante de Elkarrekin Donostia recuerda que se propuso que vinieran desde el Plan Estratégico a presentar su Plan, y aún está pendiente.
- Tema Casa de las Mujeres: ubicaciones, propuestas, avances..